eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, eta 2001eko abenduaren 31ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (150. zk.) eman zen argitara horien testu osoa. Bertan aurkitutako akatsaren zuzenketa da ondokoa:

AKATS ZUZENKETA

71. orria; 6.4. ordenantza: Tarifak: 2. atala. b) ibilgailuko (ordu edo ordu zatiko), honela dio: “0,24 euro”; honela behar du: “43,54 euro”.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko irailaren 24an.– Hirugarren Alkateordea eta Ogasun eta Aurrekontu Arloko Zinegotzi ordezkaria, JAVIER MAROTO ARANZÁBAL.

reclamaciones presentadas contra el acuerdo de aprobación provisional de 9 de noviembre de 2001 y se procedió a la publicación del texto íntegro de las Ordenanzas en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 150 de fecha 31 de diciembre de 2001, y se procede a la correspondiente corrección de las mismas:

CORRECCIÓN DE ERRORES

Página 71. En la Ordenanza 6.4. Tarifas. Apartado 2. b) por vehículo (hora o fracción) donde dice “0,24 euros” debe decir “43,54 euros”.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de setiembre de 2002.– El tercer teniente de Alcalde y Concejal Delegado del Área de Gobierno de Hacienda y Presupuestos, JAVIER MAROTO ARANZÁBAL.

## VITORIA-GASTEIZ

HIRIGINTZA SAILA

*Hirigintza Planeamendu eta Gestiorako Zerbitzua*

**6.327**

**Frai Francisco ibilbideko 29.eko lur sailaren azterlan xehea.**

Udalbatzarrak 2002ko abuztuaren 2an egindako aparteko osoko bilkuran honako erabakia hartu zuen:

GAIA: Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Frai Francisco ibilbideko 29an dagoen lur sailaren azterlan xeheari.

IRIZPENA

Gai honen inguruan honakoa azaldu du Irizpen Batzordeak 2002ko uztailaren 29an:

2002ko maiatzaren 23an eman zitzaion hasierako onespena Alkatearen dekretu baten bitartez, Promociones Zagorvi, S.L.-K sustatutako azterlan xehe honi.

Hamabost eguneko jendaurreko informazio aldia zabaldu zen eta honakoek alegazioak aurkeztu dituzte:

- Mikel Garbizu Areizaga jaunak, Frai Francisco ibilbideko 27.eko jabe komunitateko lehendakari gisa.
- Elisa Bau Jover andreak eta Juan Luis Alfaro jaunak.
- Juan Ramón Guevara Saleta jaunak.
- Jesús Ochoa de Aspuru Elorza jaunak.

Udaleko Planeamendu Zerbitzuak 2002ko uztailaren 2an egindako txostenean adierazi duenez, alegazio horiek atzera botatzekoak dira txostenean bertan azaltzen diren arrazoiak direla medio. Halaber, plangintza onestea proposatzen da baldintzapean: agiri guztiak aurkeztea lehen Azterlan Xehearen eranskintzat jotzen zuen erreferentzia oro kenduta, eta oroit-idazkiko 1.1 puntuko lehen paragrafoa ezabatzen bada.

Aurrekoarekin bat eta Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen 7/1989 Legearen 22. 2c) artikuluan ezarritakoaren ildotik, Hirigintzako Irizpen Batzordeak honakoa igortzen dio udalbatzarrari:

ERABAKI PROPOSAMENA

Lehena.- Frai Francisco hiribideko 29.eko lur sailaren Azterlan Xehea behin betiko onestea, eta sustatzaileei Promociones Zagorvi, S.L.-ri, udaleko zerbitzu teknikoak adierazitako akatsak konponduta dituen agiri osoa eskatzea. Akats hauek ez dira funtsezkoak eta erabaki honen azalpen testuan adierazita geratu dira. Gauzaketa atzeratu egingo da agiri hau aurkeztu bitartean.

Bigarrena.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea, aipatutako betekizuna gauzatu ondoren.

Hirugarrena.- Atzera botatzea Mikel Garbizu Areizaga jaunak; Elisa Bau Jover andreak, Juan Luis Alfaro jaunak; Juan Ramón Guevara Saleta jaunak eta Jesús Ochoa de Aspuru Elorza jaunak aurkeztutako alegazioak, Planeamendu Zerbitzukoek egindako txostenean adierazitako argudioak direla medio. Interesatuei hauen berri eman beharko zaie.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko urriaren 1.ean.– Alkate Lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

## VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO DE URBANISMO

*Servicio de Planeamiento y Gestión Urbanística*

**6.327**

**Estudio de detalle de la parcela sita en el paseo de Fray Francisco número 29.**

En sesión extraordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 2 de agosto de 2002, se adoptó el siguiente acuerdo:

ASUNTO: Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la parcela sita en el Paseo de Fray Francisco número 29 de Vitoria-Gasteiz.

DICTAMEN

En relación con el asunto, la Comisión Municipal Informativa de 29 de julio de 2002, expone:

El Estudio de Detalle de referencia, promovido por Promociones Zagorvi, S.L., fue aprobado inicialmente por Decreto de Alcaldía de 23 de mayo de 2002.

Sometido el expediente al trámite de información pública en forma reglamentaria, se han presentado alegaciones por :

- Don Mikel Garbizu Areizaga, en su condición de Presidente de la Comunidad de Propietarios del número 27 del Paseo de Fray Francisco.
- Doña Elisa Bau Jover y don Juan Luis Alfaro.
- Don Juan Ramón Guevara Saleta.
- Don Jesús Ochoa de Aspuru Elorza.

Las cuales han sido informadas por el Servicio Municipal de Planeamiento con fecha 2 de julio de 2002, en el sentido de desestimarlas por las motivaciones que en el propio informe se indican y proponiendo la aprobación del Plan condicionada a la presentación de la documentación completa en la que se suprima cualquier referencia a su consideración como Anexo de Estudio de Detalle anterior y se elimine el párrafo primero del punto 1.1 de la Memoria.

En conformidad con lo anterior, la Comisión Informativa de Urbanismo, visto lo dispuesto en el artículo 22.2c) de la Ley 7/1989, Reguladora de las Bases de Régimen Local, eleva al Pleno municipal la siguiente:

PROPUESTA DE ACUERDO

Primero.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela sita en el Paseo de Fray Francisco número 29 requiriendo a sus promotores, Promociones Zagorvi, S.L., un documento completo, con las subsanaciones ,de carácter no sustancial, indicadas por los Servicios Técnicos Municipales y a las que se ha hecho referencia en la parte expositiva de este acuerdo, quedando demorada su ejecutoriedad hasta la presentación del mismo.

Segundo.- Disponer la publicación del presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, una vez haya sido cumplimentado el citado requerimiento.

Tercero.- Desestimar las alegaciones formuladas por: Don Mikel Garbizu Areizaga; Doña Elisa Bau Jover, don Juan Luis Alfaro; don Juan Ramón Guevara Saleta y don Jesús Ochoa de Aspuru Elorza, en base a las argumentaciones contenidas en el informe del Servicio de Planeamiento, del cual deberá dárseles traslado.

La presente resolución pone fin a la vía administrativa y contra él puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de octubre de 2002.– El Alcalde-Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.